



1.-MOTIBAZIO ESTRATEGIKOA

Presidenteak gure Federazioan berdintasun plan bat ezartzeko lana abiaraztea proposatu ostean, Batzar Orokorrak harturiko konpromisotik dator lan hau abiaraztea. Berdintasun Plan homologatua eta Federazioaren izena hobetzeko beharrezana ikusi zelarik.

Gure Federazioan ez dago inolako diskriminaziorik kirola praktikatzeko orduan, izan ere gure modalitate guztiak mistoak dira.

Gure gobernu organoetako ordezkariak parekidea da, hori dela eta eragin-guneak beste batzuk izan behar direla deritzogu, informazioa, formakuntza eta gure entitate barruko berdintasun klimari buruzko informazioak jasota, aipatu berdintasun plana ezartzeko.

2.ZUZENDARITZAREN KOMPROMISOA

Bizkaiko Hipika Federazioak, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna sustatzen duten politikak garatu eta ezartzeko konpromisoa hartzen du. Ez du zuzenean edo zeharka sexu arrazoiengatik diskriminatuko eta gure antolakuntzaren barruan benetako berdintasuna lortzeko neurriak sustatu eta bultzatuko ditu. Horretarako, gizon eta emakumezkoen aukeren berdintasuna Giza Baliabideen eta gure Politika Korporatiboaren oinarri estrategiko bezala ezarriko ditu. Federazio honek Gizon eta Emakumezkoen berdintasun efektiboaren Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak dioen definizioarekin bat egiten du.

Federazio honen ekintzak garatzen diren eremu guztietan, gizon eta emakumezkoen arteko aukera berdintasun printzipioa gure gain hartuko dugu, zeharkako diskriminazioari jarraipen berezia eginez. Zeharkako diskriminaziotzat hartzen dugu " Hasiera batean neutroa dirudien praktika, irizpide edo disposizio batek, pertsona bati beste sexuko pertsonetikiko desabantailan jartzen dioenean".

Barne eta kanpo komunikazioari dagokionez, gai honi buruz hartzen diren erabaki guztien berri emango da eta gizon eta emakumezkoen arteko berdintasun printzipio honi jarraitzen dion irudia islatuko da.

Aipatu printzipioak, berdintasun neurriak ezarri edo gaur egungo egoera hobetuko lukeen berdintasun Plan bat ezarri eramango dira praktikara. Horretarako beharrezkoa den aurrekontua eta planaren jarraipen egokia egingo delarik. Helburua Federazioan eta oro har gizartean emakumezko eta gizonezkoen arteko benetako berdintasuna lortzea izango da.

Helburu hau lortzeko, federazioko estamentu guztiekin kontatuko da, emakume eta gizonezkoen arteko benetako berdintasuna lortzeko 3/2007 Lege Organikoak adierazten duena betez. Horrez gain, aipatutako berdintasun neurriak edo berdintasun plana ere garatuko da.

Sinatua

Juan Carlos Iniesta Sanchez

Presidentea

Bilbo, 2010eko Abendua